

BEZEROEKIKO HAREMANAK

Enpresa batean, gauza garrantzitsuenetako bat enprasaren eta bere bezeroen arteko harremana zehaztea da, gure produktua aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoak baitira. Guk gure bezeroekin konfidantza eduki nahi dugu, horrela eroso senti daitezten erosteko garaian.

Gure produktua erosteko pertsonalizazio asko behar ez denez, webgunea oso eroso izango da, hemen agertuko baitira gure diseinu, kolore, eta tamaina guztiak. Kaskoaren tamainia aukeratzeko garaian arazoak egon daitzekeela pentsatu dugunez, bertan tamaina-gida bat txertatuko dugu bezero bakoitzat tamainu egokia aukera dezan. Gainera, bakoitzaren tamaina zein izan daitekeen galdetzen duen galdetegi bat ere txertatuko dugu, horrela bezeroa zihur sentitu daiteke erosteko garaian. Hala eta guztiz ere, kasko egokia aukeratzeko ez badute, hau itzultzeko aukera ere izango dute.

Honez gain, bezeroaren konfidantza izateko, produktua eskatutakoan korreo bat bidaliko genioke. Gainera, iritsiko den egunaren bezperan beste korreo bat bidaliko genioke ordua ere zehazteko edo bezeroari hobe egokitzen zaion orduan entregatzeko. Azkenik, produktua entregatu eta bi egunetara balorazio bat betetzeko eskatuko genioke bezeroari, horrela gure zerbitzuaren alde positiboak indartu eta negatiboak hobetu ahal izateko.

Enpresa munduan berriak garenez, oso garrantzitsua iruditzen zaigu kritikak entzuten ikastea eta hauek gure enpresa hobetzeko erabiltzea, noski denak ez dira negatiboak izango, beraz, alde positiboak mantentzen eta indartzen saiatuko gara. Hau jakiteko, inkesta bat prestatzea aukera ona iruditu zaigu, hau da, bezeroek gure produktua erosten duten bakoitzean korreoz inkesta bat bidaliko diegu, horrela betetzeko eroso izan dadin Aimar Arranzek prestatuko du, izan ere, oso ondo eramaten da gendearekin eta oso tratu ona izango du bezeroekin.



Bestalde gure bezeroekin harreman estua edukitzeko kaskoa probatzeko aukera izango dute tamaina eroso bat eros dezaten. Gainera, kaskoari beraiek nahi duten diseinua aplikatzeko prest gaude, hau da, kasko pertsonalizatuak egingo genituzke neurri batean, kapritxo moduko gauza simple bat.

Beste faktore garrantzitsu bat, hizkuntza dela uste dugu, beraz, gure zerbitzua hiru hizkuntzetan eskainiko dugu: euskera, gaztelania eta ingelesa. Taldeko hiru kideok euskera eta gaztelera hobeto jakin arren, ingelesa ere ondo

menderatzen dugu, eta hau hizkintza internazionala denez, beste herrialde batzuetan ere bezeroak baditugu, ingelesez egingo genieke.

Azkenik, bezeroak eguneratuta egoteko, gure sare sozialetara egunero igoko genuke edukia, egiten ditugun estakintza eta produktu berriei, beharpenei edo diseinuei buruz jakinarazteko. Honez gain, sare sozialak ez dituztenek ere badute eguneratuta egoteko aukera ere. Horretarako, gure posta elektronikoa erabiliko dugu, honen bidez gure berriei buruz informazioa bidaltzeko.

Hau guztiari erreparatuz, esan dezakegu bezeroekiko bi harreman izango ditugula, bat pertsonala, zuzena, gertukoa eta bezeroarekin harreman estua edukitzera ahalbidetzen diguna, denda fisikoa; eta bestea, webgunea, non gure bezeroei konfidantza transmitituko diegun baino zeharkako modu batean.

